Bestelako Xedapenak

KULTURAKO SAILA

588

EBAZPENA, 2009ko abenduaren 11koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Aretxabaletan dagoen Iraeban baserria (Gipuzkoa), monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Aretxabaletan dagoen Iraeban baserriak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Iraeban baserria, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin eta II. eranskineko deskripzioarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Iraeban baserria Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendeaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei, Aretxabaletako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

588

RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Iraeban sito en Aretxabaleta (Gipuzkoa).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Caserío Iraeban, sito en Aretxabaleta y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Iraeban, conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Iraeban para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Aretxabaleta y a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planifi-

Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak Ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 11.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera hartzen du, alde batetik, mendebaldeko atzeko eranskina eta ipar-fatxadako labe txikia barne, eta beste aldetik, haren ingurumaria. Horrenbestez, eremuak muga hauek ditu: H-ra lerro paralelo bat, fatxadatik 35 metrora; W-ra lerro paralelo bat, mendebaldeko fatxada nagusitik 35 metrora, eranskina barne hartzen duela; I-ra lursailaren itxitura mugatzen duen lerroa; eta E-ra errepidearen kanpoko ertzari jarraitzen dion lerroa, zeinak, gainera, errepidearen azpiko irekigune edo pasabide bat definitzen baitu, 12 metrokoa, txaranbeldua 14 metroraino, lakuari aurrez aurre eta baserriko eki-fatxadarekiko zentratua.

Mugaketa-eremu honen barruan agertzen diren banatutako eranskinak ez dira monumentutzat hartzen.

b) Mugaketaren zergatia.

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Iraeban baserriko ingurumariko ingurumen-balioak eta ikuseremua babestu behar direlako, Aretxabaletako Goroeta auzoko bizkar baten gainean kokatua. Inguruaren mugaketak –beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko– zera dakar, baserriaren ondoko inguruak ere babestea, eta oraingo GI-3132 errepidearen azpiko zati bat inkorporatzea, horrela laku-haranaren gainean eraikinak duen irekigune bisuala eta espaziala berreskuratu eta baserriaren bereizgarritasunak kontserbatzeko. Hori dela eta, mugaketak ez du soilik baserriaren eraikina hartzen, ezpada ere haren ingurumaria.

cación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ANEXO I

Delimitación


a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, incluido su adosado trasero oeste y el pequeño horno sobre la fachada norte y, por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites: al S una línea paralela distante 35 metros de la actual fachada sur. Al W una línea paralela distante 35 metros de la fachada principal oeste, quedando incluido el cuerpo adosado. Al N, la línea que delimita el cierre de la parcela. Y al E una línea que sigue el borde exterior de la explanación de la carretera definiendo, además, una apertura o paso debajo de la misma con una apertura de 12 metros abocinada hasta 14 metros frente al lago y centrada con la fachada este del caserío.

Los anejos separados que figuran dentro de este ámbito de delimitación no forman parte del monumento.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justifica por la necesidad de recuperar y preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Iraeban situado en una loma del barrio Goroeta de Aretxabaleta. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien catalogado implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes, así como la incorporación de un tramo emplazado debajo de la actual carretera GI-3132, a fin de poder recuperar la apertura visual y espacial del edificio sobre el valle del lago y de preservar el carácter propio del caserío. Por ello esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también ese entorno que lo rodea.


URKULU urtegia
cota 380
cota 370
cota 350
cota 360
<---35 m.--->
<---35 m.--->
Iraeban
14m.
12m.
Gi-3132
ESKALA / ESCALA
30 15 0 30 Metros
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Iraeban baserriaren mugaketa
Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA
Udalerria / Municipio: ARETXABALETA
Data / Fecha: 04/12/2009
Eskala / Escala: 1:1.500

II. ERANSKINA

Deskribapena

Familiabakarreko baserria, oinplano laukizuzena duena, gutxi gorabehera 15 x 15 metrokoa gehi erantsitako alboko atal bat, 5 x 15 metrokoa, 360 eta 370 koten arteko malda txikiko bizkar batean kokatua eta honako bi atal erraz bereiztekoak dituena: atzealde edo biltegia, Mendebaldean, behe-solairua eta sotoa dituena; eta aurrealde edo bizitokia, Ekialdean, behesolairua, lehenengo solairua eta ganbara dituena. Biltegi moduan erabilitako zati zaharrenaren estalkia hiru isuriko estalkia da, eta erantsitako ipar-atala ere hartzen du barruan. Bizitokitzat erabilitako zatiaren estalkia lau isuritakoa da, Ekialdera jotzen duen fatxada nagusiarekiko paralelo dagoen gailurrarekin.

Itxitura-hesiak luzitutako eta margotutako harlagaintzezkoak dira, eta eskantzuetan baino ez ditu harlanduak. Fatxadetako bao gehienak zurezko burualdeak dituzte. Fatxadak bi sarbide ditu: bata aurrealdetik, alderdi nagusitik, Ekialdetik alegia, eskaratzera zuzenean sartzeko; bigarrena atzealdeko fatxadatik, Mendebaldetik, gurdientzako aterpe ireki batean.

I-ko fatxadak bost metro zabaleko eta hamabost metro luzeko eranskin bat du, era orekatsuan jarritako hiru leiho karraturekin. Eraikinaren gainerako elementuak baino geroagokoa da, baina guztiarekin ere eraikin-atal nagusiarekin ongi integraturiko estalki nagusipeko bolumena eratzen du.

W-ko fatxadak ere estalki nagusiaren azpiko atal erantsi bat du, eraikinaren jatorrizko atalaren garaikidea. Gurdiak gordetzeko tegi moduan erabiltzen da.

Eraikinaren barrualdeak erdiko sekziodun zurajea du: pilareak, habeak eta gapirioak. Zurezko hiru zertxa ditu, bizitokirako bolumena estaltzeko.

Bizitokirako bolumena barru-ezkaratz baten inguruan antolatzen da, eta bertatik eskailera baten bidez gelak daude solairura igo daiteke. Sukaldea behesolairuan dago, hegoekialdeko ertzean, eta oraindik jatorrizko beheko sua gordetzen du, bai eta ogi-labe bat Ekialdeko fatxadan, teila arabiarrez estalitako adreilu trinkodun ganga baten tankeran. Fatxadaren antzeko eraikuntza-mota duen harresi batek banatzen du bizitokiaren bolumen guztia gainerako elementuetatik.

Iraeban, gaur egun, ia osorik XVIII. mendeko eraikintzat har daiteke, agian XVI. mendekoak izan litezkeen harresi-zati batzuen abiatzeak izan ezik. Garai horretakoak dira, dudarik gabe, bizitokirako atala eta, beharbada, gainerako estalkia. Bilakaeraren emaitza eraikuntza-mota berezia da, zeren ilustrazio garaiko egoitza-antolamendu bat garatu baitu nekazaritza eta abeltzaintzarekin loturiko baserri tradizionalaren gainean.

ANEXO II

Descripción

Caserío unifamiliar de planta rectangular, de aproximadamente 15 x 15 m más un cuerpo lateral adosado al norte de 5 x 15 m, implantado en una loma de suave pendiente entre las cotas 360 y 370, que dispone de dos cuerpos claramente diferenciados: el trasero o almacén, al Oeste, con planta baja y desván; y el delantero o vivienda, al Este, con planta baja, primera y desván. La cubierta de la parte más antigua destinada a almacén se resuelve a tres aguas e incluye también al cuerpo norte adosado. La cubierta de la parte destinada a vivienda se resuelve a cuatro aguas con cumbrera paralela a la fachada principal de orientación Este.

Los muros de cerramiento son de mampostería revocada y pintada que presentan sillares únicamente en esquinales: casi todos los huecos de las fachadas están construidos con dinteles de madera. El desarrollo de la fachada dispone de dos accesos: uno desde la fachada principal delantera, al Este, directo al zaguán interior; y el otro desde la fachada trasera, al Oeste, emplazado junto a un espacio para carros cubierto y abierto.

La fachada N presenta un adosado de unos cinco metros de ancho y quince de largo con tres ventanas cuadradas equilibradamente emplazadas. Su actual expresión es de factura posterior a la del resto del edificio, no obstante lo cual genera un volumen bajo la cubierta principal bien integrado con el cuerpo principal del edificio.

La fachada W presenta un cuerpo adosado emplazado también bajo la cubierta principal y que presenta construcción de la época del cuerpo original del edificio. Sirve de garaje para carros.

El interior del edificio es de madera de sección media en toda la carpintería de armar: pilares, vigas y solivos. Dispone de tres cerchas para la cubrición del volumen destinado a vivienda resueltas en madera.

El volumen destinado a vivienda se organiza mediante un zaguán interior desde el que mediante una escalera se accede a la planta de habitaciones. La cocina está emplazada en la planta baja, en el ángulo sureste, y conserva el fuego bajo original así como un horno de pan que se manifiesta sobre la fachada este que está resuelto con bóveda de ladrillo macizo cubierta con cubrición de teja árabe. Todo el volumen de la vivienda se separa del resto mediante muro de construcción similar al de fachada.

Iraeban es un edificio que, salvo el arranque de algunos tramos de muro que puedan ser del siglo XVI, en su actual manifestación corresponde casi completamente al siglo XVIII, época a la que sin duda corresponde el cuerpo construido para el uso residencial y posiblemente el resto de la cubrición. El resultado de su evolución ofrece un tipo edificatorio singular por cuanto que incorpora una ordenación residencial de la época de la ilustración sobre el tradicional tipo edificatorio del caserío rural agropecuario.